



DEBAko UDALA

2015SPLE0011
12. BILERA: OHIKOA 2015-11-26

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hamabigarrena

Eguna: 2015/11/26

Hasiara-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 19:55

Onarpen-eguna: 2015/12/24

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA


ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

AIMAR LASA URKIRI

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/10/29)
2. Arte Eskolako Patronatuko batzorde erretoreko ordezkarien izendapen proposamena.
3. EAJ/PNVk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Azaroak 25.
4. HAKOBak aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.
5. UEMAk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.
6. EUDELe aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.
7. EH BILDUK aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.
8. Alkatetza Dekretuen zerrenda
9. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/10/29)

Itziar Irizar zinegotziak ondoko zuzenketa egitea proposatu du: galdera erreguetan gehitzea alkatearen erantzuna Debemenen auzo ordezkaria egotearen inguruan eta horretarako egindako bileraren inguruan.

Ondoren, 2015eko urriaren 29ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

2.- Arte Eskolako Patronatuko batzorde erretoreko ordezkarien izendapena.

Proposamena

Lehendakaria: Iñigo Cambronerok (alkatearen eskuordetza).

Bokalak: Ane Egidazu, zinegotzia Debarren Ahotza.

Cristobal del Corte, zinegotzia EAJ-PNV.

Bilduko zinegotzi bat (finkatzeke).

Willi Beresaluze.

Miren Esnal.

Alex Turrillas

Eskolako zuzendaria, Karmel Arangüena.

Iritziak eta galde erantzunak

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek bigarren indar politikoa direla jasotako bozken arabera, eta beti aldarriku izan dutela erabaki guneetan egon behar direla, baina hori irizpide baten arabera, Arte Eskolako Patronatuan bai, Debemenen ez.... Izendapen-proposamena Udalbatzarraren bilera deiarekin batera jaso dute, baina adierazi gabe nondik datorren proposamen hori. E-maila ez da modua era honetako proposamenak jasotzeko.

Iñigo Cambronerok, gaiaren harira erantzun dio nondik nora zetorren proposamena.


Azkenik, alkateak galdetu dio Mainerri, prest ote dauden Patronatuan sartzeko, eta Mainerrek erantzun dio, horrela ezetz, lan egiteko prest dauden arren.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:

12



DEBAko UDALA

◇ Aldeko botoak:	8
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BONGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	4
◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBIKARAI, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaita: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udaltzarrak hartu du erabakia, bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Arte Eskolako Patronatuko batzorde erretoreko ordezkariak izendatzea:

Lehendakaria: Iñigo Cambronero (alkatearen eskuordetza).
Bokalak: Ane Egidazu, zinegotzia Debarren Ahotsa.
Cristobal del Corte, zinegotzia EAJ-PNV.
Iñaki Esnaola, zinegotzia Debarren Ahotsa.
Willi Beresaluze.
Miren Esnal.
Alex Turrillas

Eskolako zuzendaria, Karmel Arangüena.

Bigarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

3.- EAJ/PNVk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Azaroak 25.

Unai Lekube zinegotziak adierazpen instituzionalaren testua irakurri egin du:



DEBAko UDALA

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argi azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ez dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeke orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarduerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratua onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta



DEBAko UDALA

burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako '*Beldur Barik*' ekimenean.

Erabakia.

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- EAJ/PNVk aurkeztutako adierazpen instituzionala "*azarroaren 25^a emakumeenganako indarkeriaren aurkako naizoarteko eguna*" onartzea.



DEBAko UDALA

4. HAKOBak aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.

5. UEMAk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.

6. EUDELEk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.

7. EH BILDUK aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen eguna.

Udalbatzarraren bilera deia aipatutako lau adierazpen instituzional horiekin egin da, baina Debako Udaleko Bozeramaileen Batzordea egin dute Udalbatza osatzen duten hiru alderdiek eta testu bateratu bat adostu dute.

Ane Egidazuk testu bateratua irakurri egin du:

Hazkunde prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak.

2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira.

Horregatik guztiagatik:


Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza erakustea eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren bati laster EUSKALDUN BERRIA izena jartzea.

Horregatik, euskaldun berriei aitortza hau egiteaz gain, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko eta horretarako bitartekoak jartzeko eta erraztasunak emateko konpromisoa hartzen dugu. Baita udalerraren erabateko euskalduntzean dugun ardura eta egiten dugun ekarpena aztertzea ere, horren inguruko hausnarketa eginez, ditugun baliabideen eta eskumenen baitan.

Udalerrri euskalduna den heinean, Debako Udalak, honen bidez, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi nahi du, harrotasunez, herri honen kulturari eta izaerari egin diezaiokeen ekarpen ederrenetakoa dela iritzita. Era berean, aitortu eta eskertu egin nahi du, egunero euskarari hauspoa ematen dioten herritar guztien hautua eta ekarpena eta, aurtan, bereziki, euskaldun berriena.

Erabakia.

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:



DEBAko UDALA

Lehenengo.- Debako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak adostutako adierazpen instituzionala euskararen egunaren inguruan onartzea.

8.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

116	2015/10/30	Udaltzaingorako langilearen kontratazioa: azaroak 1 (Itziarko feria)	
117	2015/11/04	Santa Katalinan atsendekua eraikitzeko proiektu bat egiteko aurrekontuaren onarpena (7.200 €)	
118	2015/11/13	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: Azaroaren 16 eta 17 (lan baimena)	
119	2015/11/15	Udaltzaina bitarteko funtzionario izendatzea (gaixotasun baja ordeztzea)	
120	2015/11/19	Eguneko Zentrorako langile bati norberaren arazoetarako ordaindu gabeko biamena ematea (azaroaren 23tik abenduaren 31arte)	
121	2015/11/20	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: azaroaren 23tik abenduaren 31arte	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

9.- Eskariak eta galderak.

Ane Egidazu zinegotziak azaldu du UEMari kontsulta egin diola bere erabakitze organuetan auzo ordezkaria egoteko aukeraren inguruan eta erantzun diotela ordezkariak bakarrik udal zinegotziak izan ahal direla.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2015eko azaroaren 26a

IDAZKARIA